



ELENA EIGUREN ▶ IMMIGRAZIO TEKNIKARIA

«Immigrazio Plan bat adostu eta kudeatzea dugu helburu»

TOLOSA ▶

Zerbitzu berria
eskainiko du
Tolosaldea
Garatzenek

ESKUALDEA ▶

«Oso une
egokian gaude
horrelako plan
batentzat», dio ▶ 3



Angela BROWN. ANJEL ALONSO

TOLOSA ▶

«Espero zen maila» eman dute Blues jaialdiko taldeek

Tolosandblues-eko
antolatzaileak «oso
gustura» azaldu dira ▶ 4



I. TERRADILLOS

Gazte Forum lehiaketa Tolosara

TOLOSA ▶ 'Mundua Tolosan' izeneko hip-hop kantuarekin Cibermafia Junior taldeak Foru Aldundiak antolatutako saria irabazi du ▶ 2

LIZARTZA ▶

EAE-ANVren ustez, «PPk Udala faxisten moduan» hartu du

«Herritarren beharrei erantzunez» jarraituko duela dio ▶ 6

ENERITZ MAIZ ▶
IKAZTEGIETAKO ALKATEA

«Herritarren iritzia eta parte-hartzea nahi dugu»

Eskola berriaren alde
egingo du Guraso
elkartearekin ▶ 5



Maiz eta Dorronsoro. N. URBIZU

MARZELINO
DORRONSORO ▶
BALIARRAINGO ALKATEA

«Errepidea aldatzeak du orain lehentasuna»

Haur eta adinekoen
alde lana egingo du ▶ 5

BIDAIA ALTERNATIBOAK

Bidaiatzeko beste modu bat

Hegaldiarekin

...tik aurrera

Hegaldirik gabe

VENEZUELA	20 egun	2030€
Peru	17 egun	1805€
Bulgaria oinez	15 egun	1210
Vietnam	20 egun	2190€
India	16 egun	1200€
Yemen	18 egun	1580€
Uzbekistan	17 egun	1790€



Naminia-Bostwana-Zimbabwe	14 egun	700€
Hegoafrika - Lesotho	20 egun	1000€
Bolivia	16 egun	997€
Estatu Batuak	16 egun	1218€
Canada	15 egun	1189€
Nepal	13 egun	558€
Myanmar	14 egun	760€

Egitarau gehiago aukeran
KONTSULTATU

Web orriko bazkidearen trukoan izena
eman eta bidaiaren baten zozketan
sartuko zara.

Egitarau gehiago aukeran
KONTSULTATU

KULTOUR

Segundo Izpizua 28
Donostia. 943 29 70 25

info@kultourbidaiak.com
www.kultourbidaiak.com

GIZARTEA ▶

Cibermafia Junior taldeak irabazi du Gazte Forum

'Mundua Tolosan' izenburupean, hip-hop erritmoz osatutako kantu bat egin dute 14-17 urte bitarteko gazteek



Cibermafia Junior taldeko kideetako batzuk, Tolosan egindako bideokliparen aurkezpenean. I. TERRADILLOS

ESTI EZEIZA

Tolosako gazte talde batek sortutako *Mundua Tolosan* izeneko bideoklipak irabazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Gazte Forum lehiaketa. Hip-hop musika dute gustuko gazte hauek, eta hau oinarritzat hartuta, aldarrikapen kantu bat osatu dute. Egungo gazteen egoeraz, drogez, prostituzioaz, jendearen aurreiritziez eta estereotipo markatuez hitz egiten dute beraien kantuan. Abestietako hitzak gaztelaniaz daude idatzitak. *Cibermafia Junior* izenarekin eman dira ezagutzera.

Hiru hilabetetan gogor egin dute lan zazpi minutu irauten duen lan hau egiteko. Oinarriak ezik gainontzekoa zazpi taldekideek egin dute, baita muntaia ere. Dena den, inguruko laguntza ere izan dute, besteak beste, beraiekin ordu asko igarotzen dituzten kale hezitzaileena. Irudiak Tolosan grabatu dituzte, «gu normalean egoten garen txokoetan», azaldu zuten taldekideek. Honen ondoren, maketa bat grabatzeko asmoa dute gazteek.

14 eta 17 urte bitarteko gazte hauen esanetan ez zuten uste irabaziko zutenik Gazte Forum

lehiaketa. Baina hala gertatu da, eta sari moduan kale hezitzaileen laguntzaz, aisialdiko ekintzetan gastatzeko 600 euro idabazi dituzte. Denera, Gipuzkoako 17 taldek hartu zuten parte lehiaketan. Bigarren postuan azpeitiarrak geratu ziren, eta hirugarren, Hondarribikoak.

Zer da Gazte Forum?

Gipuzkoako Foru Aldundiko, Giza eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak finantzatzeko duen lehiaketa bat da Gazte Forum. Gipuzkoako lurraldetaraino zabaltzen da eta Heziberb elkarteak kudeatu eta garatzen du.

Gazteleku eta kale heziketa kudeatzaileek, askotan, gazteen artean talde-egoera kezkarriak ikusten dituzte, bere zaurgarritasunagatik, hauskortasunarengatik, arrisku egoeragatik, erakusten dituzten jokaerengatik... Baina era berean, hezitzaileek, lagun-talde ezinbestekoa dela uste dute, garapen pertsonalerako funtsezko osagaiak dauzka, gazteei hauek ezagutzen eta sustatzen laguntzea behar da.

Gazte Forum egitasmoak, pertsona zein lagun taldearen inguruan hausnartzeko aukera eskaini nahi du. Gakoa, euren gan hitz egin eta hausnartzean datza, euren taldea, kezkak, zalatasunak, indar-guneak... lan-tzen joatea.

LUZ KLEMENTE ▶ KALE HEZITZAILEA

Luz Klementek (Donostia, 1971), Andoni Duran eta Estitxu Arnaizekin batera, urte asko daramatza Tolosan kale hezitzaile lanetan. Hiruren artean lagundu dute Cibermafia Junioreko taldekideei *Mundua Tolosan* lanarekin.

Zertan datza kale hezitzaileen lana?

Gizarte zerbitzuek antolatutako eta kalean aurrera eramaten den programa bat da. 11

eta 17 urte bitarteko nerabeekin egiten dugu lan. Helduen erreferentzia gara, familiatik eta eskolatik kanpo dagoena. Halere hauekin erlazioa dugu, elkar ezagutzen dugu, denetan artean koordinazioa dago.

«Kale hezitzaileak hezkuntzan dauden zenbait hutsune betetzen saiatzen gara»

Nolatan sortu zen kale hezitzaileen egitasmoa?

Duela 15 urte sortu zen ekimen hau Gipuzkoan, baina Katalunian eta Espainian 50 urte inguru daramatzate arlo honetan lan egiten. Osabidezko Hezkuntzarako Partzuergoak ikusi zuen hezkuntzan zenbait hutsune zeudela eta kale hezitzaileek hauek bete zitzaizketela. Egun 25 herrik dute programa hau, normalean 5.000 biztanletik gorakoek.

Zein dira egunean zehar egiten dituzuen ekintzak?

Erakunde ezberdinekin egiten dugu lan, eta hau hauen harremanak koordinatzen aritzen gara, eskaintza handiago izan dadin. Gazteria saila, kirola eta abar lantzen ditugu. Gazteak tartean dauden ekintza eta gertaeretan parte har-

tzen dugu, beraien alde egiteko.

Nolakoa da gazteekiko lehendabiziko kontaktua, nola hurbiltzen zarete beraiengan?

12 urte daramatzagu Tolosan eta ordutik hona gauzak aldatu dira, izan ere, dagoeneko elkar ezagutzen dugu. Hasiera batean, kaleko lan handia egin behar izaten genuen, hemen egoten ginen, beraiek egoten ziren lekuetara hurbilduz. Ondoren, ekintzak antolatzen hasi ginen, dantza ikastaroak, futbol txapelketak... Azken batean, nolabait elkar aurkitzen dugu, guk beraiek, eta beraiek guri.

Duela egun gutxi Gazte Forum txapelketa irabazi du Tolosako gazte talde batek. Bertako saria ekintzetan gas-

tatzeko da; zer egiteko asmoa duzue?

Normalean, beste eskualdeetako gazteekin batera futbol txapelketak antolatzen ditugu, eta hau agiteko aprobetxatuko dugu. Goierri eta Buruntzaldekoekin batera jolasten dugu. Bestalde, Arkachoneko (Frantzia) ur-parkera txangoa egingo dugu, eta kanpinean egun batzuk pasatzera ere joango gara.

Bestalde, maketa bat grabatzeko asmoa ere badute Cibermafia Junior taldekoei; zertan da egitasmo hau?

Bidea bezala, maketa ere guk geuk grabatu nahi dugu. Horretarako ekipu txiki bat daukagu, eta honekin moldatzen saiatuko gara. Dena den, datorren urterako-edo egongo da prest diskoa. ◀

hitza

Praktikak HITZAn irailetik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazio lizentziatuetako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behea- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
(uztailearen 15a baino lehen)

ELENA EGIGUREN ▶ TOLOSALDEA GARATZENENKO IMMIGRAZIO TEKNIKARIA

«Kulturartekotasuna bultzatuko duen plan bat kudeatzea da gure helburua»

Immigrazioaren fenomenoak kudeatzeko Tolosaldea Garatzenek zerbitzu berria jarri du martxan, eta Elena Egiguren tolosarra izango da bertako teknikaria

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak zerbitzu berria jarri du martxan immigrazioaren fenomenoak kudeatzeko helburuarekin. Elena Egiguren (Tolosa, 1972) da zerbitzu berriko teknikaria.

Zelín izango da zerbitzu berri honen helburu nagusia?

Kulturartekotasuna bultzatuko duen Immigrazio Plan bat adostu eta kudeatzea. Zerbitzua gure eskualdeko udaletxe guztiei zuzenduta dago, eta aholkuak eman eta dituzten beharrak asetzeko da gure eginkizuna. Besteak beste, eskualdeko udaletxeen immigrazioarekin lotutako informazioa emango zaie. Udaletxe guztiek beraz, aurrerantzean eskuragarri dute zerbitzu hau.

Zertan oinarrituko da Immigrazio Plana?

Planaren barruan hainbat puntu daude, eta egun buruan dugu Harrera Plana diseinatzea da. Izan ere, etorkinek hona iristean informazio asko dute agian, baina oso sakabanututa, eta landu nahi duguna da baliabideen gida bat. Lehenengo integratzaileak tailerrak antolatu nahi ditugu, bertako ohiturak, historia, hizkuntza eta abar ezagutu ditzaten. Euskarazko oinarriko hiztegia ere argitaratu nahi dugu.

Nondik dator plana egitearena?

Tolosako Udalak 2004. urtean onartutako Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren baitan, eskualdeko immigrazioaren egoera ezagutzeko diagnostiko baten beharra aipatzen zen. Aurretik, 2003. urtean eratu zen Immigrazio Mahaian sortu zen diagnostiko hori egiteko beharra. Mahai hori Tolosaldeko immigrazio-fenomenoaren inguruan lanean dardaratu hainbat erakundek eta elkarrekin osatzen dute: Ereite, Jatorrin, SOS Arrazakeria, Gurutze Gorria, Caritas, Abegi, EIN, Peñasal fundazioa, Tolosaldea Garatzen, Hirukide, Orixo eta Helduen Hezkuntza. Hala, Tolosaldeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak bere gain hartu zuen proiektua, eta aipaturiko elkarte eta erakundeei hartu zuten parte. Diagnostikoarekin, egoeraren berri jakin ge-



I. TERRADILLOS

HARRERA PLANA

«Baliabideen gida landu nahi dugu, jakin dezaten etorkinek gurerara iristean zerekin egingo duten topo»

nuen, eta ondoren etorri da, beraz, ikusitako behar horiei konponbidea emateko plan bat sortzearena.

Adingabekoen kasuan ere mahai bat osatu duzue.

Bai, badugu beste lan mahai bat. Lehen harrerako zentroa dago Tolosan, eta mahai honen baitan daude Diputazioa, Tolosaldeko Udala eta elkarrekin erakundeak. Hemen ere, Harrera Plan bat eratu nahi dugu adingabekoei begira.

Immigrazio Planaren baitan sentsibilizazioa puntu garrantzitsua da.

Kanpotik etortzen direnentzat bai eta hemen bizi direnentzat

GURE ESKUALDEA

«Etorkinen kopurua txikia da; horregatik, oso une egokia da Immigrazio Plana kudeatzen hasteko»

ere, ari gara lanean. Diputazioarekin batera hasiak gara sentsibilizazio kanpainak egiten ikastetxeetan. Hasieran, batez ere, adingabekoen inguruan ari gara; estereotipoak haustea da helburua, ezagutu dezatela nondik datozen, bizi duten errealitatea zein den...

Kulturartekotasuna bultzatzeko hainbat idela dituzue.

Kulturartekotasuna bultzatzea da helburuetako bat. Tolosaldean antolatzen diren hainbat ekintzatan etorkinen parte-hartzea sustatzea lortu nahi dugu. Orain arte egiten denaz gain, hemen bertakoek antolatzen dituzten ekintzetan etorki-

nek nola parte hartu pentsatu behar dugu.

Honetaz gain, zein da zuen egitekoa?

Gure lan barruan koordinazio lana dago dauden mahai guztietan, Gipuzkoako immigrazio teknikariek koordinazio bileren parte-hartzen dugu, Eusko Jaurlaritzaren Udalen sarean ere parte hartzen dugu eta Agenda 21ekin lotura dugu, baina indartu egin nahi dugu. Dena den, orain, garrantzitsuen Immigrazio Plana adostu eta horren barruan hainbat ekintza martxan jarzea da, Harrera Plana, esaterako.

Orain gutxi ikastaro bat eskaini zenieten udaleko lankideei. Nola joan zen?

Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzarekin batera, immigrazio eta kulturartekotasunari buruzko oinarriko lau eguneko ikastaroa antolatu genuen. Eskualde osoko jendea etorri zen. Eusko Jaurlaritza barruan dauden Ikuspegitik, Heldutik eta Biltzenetik etorri ziren ikastaroa ematera; immigrazio zuzendaritzaren baitako sailak dira hauek. Oso interesgarria izan zen.

Gure eskualdean etorkinen kopurua zenbatekoa da?

Une honetan kopurua bajua da. Eukal Autonomia Erkidego-ko datuekin alderatuta, (%4a dira etorkinak) behetik gaude (%3aren bueltan gaude). Beste eskualdeekin konparatuta, bigarrenak gara behetik hasita. Beraz, oso une egokia da plan hau guztia kudeatzeko. Abantaila hori dugu, izan ere, beste leku batzuetan ia arazo bezala ere bizi baitute.

Aurrera begira zer espero da?

Kopurua handituko da, baina ez da askoz ere gehiago handitzerik espero. Euskal Herriari dagokionez, gaztelaniaz hitz egiten den herrietan ari da etorkinen kopurua bereziki handitzen. Villabonan, esaterako, 2005etik 2006ra bikoiztu egin da kopurua, baina hori izan daiteke Tolosan etxebizitza lortzeko arazoa handia delako. Zonalde horretan, gainera, eta Tolosaldean, orohar, etorkin ugari ari da baserrietan lanean, eta baserriak mantentzen laguntzen ari direla ere esan daiteke.

ALEGIA ▶

Zikiro jaterako txartelak hilaren 7ra arte salgai

Zikiro jaterako izen ematea luzatzea erabaki dute, eta hilaren 7ra arte izango dira salgai txartelak. Jai batzordetik jendea animatzen dute ekitaldi honetan parte hartzera.

AMEZKETA ▶

San Felizisimorako bidaiak, atzeratuta

Jose Mari Goikoetxeak antolatutako San Felizisimorako bidaiak atzeratu egin da, eta datorren igandean joango dira. 08:00etan aterako da Amezketa autobusa, eta 12:30ean San Felizisimo ermitan meza entzungo dute. Ondoren Deustoko La Casa Vasca-n bazkalduko dute, eta arratsaldean Lekeitio edota Zarautz bisitatuko dute. Izena emateko 630 85 55 00 telefono zenbakira deitu beharko da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**
▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzion Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536
▶ **Gurutze Gorria:** 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

▶ **Garraioak.**
▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzarar autob.: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

▶ **Besterik.**
▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016
▶ Iurreremendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

ANOETA ▶

Udalak ezohiko osoko bilkura egingo du gaur

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak ohizkan-poko bilkura egingo du gaur, 19:30ean. Ondorengo gaiak jorratuko dituzte, besteak beste: talde politikoen osaketa; batzorde informatzaileen eraketa, osaketa eta eskumenak; udalbatzaren ordezkarien izendapenak erakunde desberdinetan; bulegoen banaketa talde politikoei eta udalkideen asignazioak kar-gu publikoa betetzeagatik.

VILLABONA ▶

Ezohiko osoko bilkura deitu du gaurko Udalak

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak ezohiko osoko bilkura egingo du, gaur, 20:00etan. Ondorengo gai-zerrenda landuko dute, besteak beste: informazio-batzorde iraunkorrek eratztea eta osatzea; ordezkariak izendatzea korporazioak ordezkaturata egon behar duen organo kolegiatuetarako; alkateak hartutako erabakiak ezagutaraztea alkateordeen izendapenaren, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen eta informazio-batzordetako lehendakariaren inguruan; eta alkatearen, zinegotzien eta talde politikoen ordainen, asignazioen eta dotazio ekonomikoen erregimena onartzeko proposamena.

TOLOSA ▶ TOLOSANDBLUES JAIALDIA

«Esperotako maila» eman zuten jaialdian izan ziren taldeek

«Oso gustura» agertu da Iñigo Martin, Tolosandblues-eko antolatzaileetako bat, jaialdiaren balantzea egiterakoan



THC Iruñeko taldea emanaldiko une batean. ANIEL ALONSO

IMANOL GARCIA

Maila altua izan du aurtengo Tolosandblues jaialdiak, Iñigo Martin antolatzaileetako batek azaldu duenez. «Taldeen esperotakoa bete dute», azaldu du Martinek eta antolatzaileak «oso gustura» daudela dio. Jende kopuruaren aldetik ere balantze ona egin du. «Orokorrean jende ugari izan zen. Agian, Jean-Marie Ecayren emanaldian ez zen jende asko egon, baina ordutegi kontua ere izan daiteke, 20:30ean jo baitzuen. Hurrengo urterako kontuan izan beharko dugu hori».

Angela Brown izan zen jaialdiko izarra eta «goi mailako kontzertua» eman zuela azaldu

du Martinek. «Oso ahots ona du eta emanaldiaren aurretik esan zuen oso gogotsu zegoela kontzertu on bat emateko», gaineratu du. 500 lagun inguru izan ziren kontzertua jarraitzen.

THC talde iruñarrak emanaldi ona eman zuela adierazi du Tolosandblueseko antolatzaileak. «Goi mailako musikariak dira eta oso kontzertu irekia eman zuten, musika estilo ezberdinak jorratuz».

«Errepikatze zaila»

Joan Pau Cumellas eta Antonio Serrano ahooinujoleek emandako kontzertua «errepikatze zaila» izango den esperientzia izan zela dio Martinek.

«Amaiera zoragarria eman zioten jaialdiari. Ia bi orduko emanaldia egin zuten eta gogotsu zeudela argi utzi zuten. Estatus mailan ziur eta agian Europa mailan ere bi ahooinujoleek eman dezaketen maila handieneko kontzertua izan zen».

Entzulegoaren erantzuna galdetzerakoan, kontzertuetara joan zen zenbaitek «oso gustura» gelditu zirela eta «luxu bat» izan zela azaldu ziotela dio Martinek. Bestalde, taldeetako partaideek Tolosako Lizardi eta Eroetxe elkarteetan afaldu ahal izan zuten eta berriekin izandako tratua «asko eskertu» zutela dio Martinek. «Profesional handiak dira eta jende oso jatorra da», zehaztu du antolatzaileak.

IBARRA ▶

Gizonezko bat hil da zubitik erorita



Atzo istripuaren ostean. i.e.

51 urteko gizonezko bat hil zen atzo goizean Ibarra zubitik erorita. Ezbeharrak 11:30ean gertatu zen. Erztaintzak jakitera eman zuzenez, gorpua Donostiako ospitalera eramatu zuten.

TOLOSA ▶

Yemengo atentatua gaitzesteko deia

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bat egiten du, jakinarazpen baten bitartez, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egindako deialdiarekin, Eudelek ere bere egin duena. Deialdi horretan turista talde batek Yemenen jasandako atentatua gaitzesten dute. Horrela, Alkateak dei egiten die herritarrei, gaur, 12:00etan eta ordu laurdenez, atentatuaren kontra agertzeraz udaletxe aurrean.

VILLABONA ▶

Udalak langileak kontratatuko ditu Santio jaietarako

Udalak aldi baterako peoi arduradun bat, bi peoi arunt eta trafikoa zaintzeko 4 langile kontratatuko ditu Santio jaietarako eta noizean behin lan ezberdinetarako. Peoi kontratazioan interesatuta daudenek 18 urte eta gutxieneko euskararen ezaguera izan behar dituzte. Trafiko zaintzaile kontratazioan interesatuek 18 urte beteta eta euskararen ezaguera ahozko mailan behar dituzte. Biatarako izen-emate epea hilaren 10ean amaituko da, 14:00etan, udal bulegoetan.



BASABI

Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m²ko etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.

Anoeta. Berriki eraiki eta kanpoaldera begira dagoen etxebizitza salgai. Garajearekin eta altzariz hornituta.

Anoeta. Harrizko baserrian 90m²ko etxebizitza salgai.

Beritzeko.

Betelu. Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukaldea, bi bainugela, terraza eta altzariz hornituta.

Ezinhobea.

Donostia. Mandasko duke kalean

etxebizitza salgai dago atikoarekin. Prezio ezberdinak.

Eraberitua.

Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberitua. Plazaren inguruan.

Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Sartzeko moduan.

Legorreta. Ostalaritzako negozioia salgai.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m²ko etxebizitza.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 122 m²ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.

Tolosa. Berazubín, laugarren solairuan eraberitutako etxebizitza. Igogailu proiektua onartuta.

Tolosa. Berazubi auzoan, laugarren solairuan etxebizitza, eraberitua.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 35 m²ko merkatarizarako lokala, 35 m²ko sotoarekin.

Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m².

IKAZTEGIETA-BALIARRAIN ▶ UDALA

Eneritz Maiz hasiberria da alkate lanetan, EAE-ANVren ordezkari, Ikaztegieta; Baliarraingo Martzelino Dorronsorok, berriz, 12 urte daramatza, bere herriko alkate (Herritarrak) NEREA URBIZU

ENERITZ MAIZ ▶ IKAZTEGIETAKO ALKATEA

«Herritarren iritzia eta parte-hartzea eskatzen dugu»

Guraso elkartearen lanarekin eskola berriaren alde egingo du

Ikaztegieta alkatea gaztea da, baina gogo eta ilusio handiarekin heldu dio lan berriari (Ikaztegieta, 1982). Eneritz Maizek (EAE-ANV) bere urtebetetze egunean tarte bat izan du herriaz hitz egiteko.

Nola baloratuko zenuke azken legealdia?

Hirigintza aparte beste ezer ez da egin. Herritarrak, gainera, ez du jakin Udala zertan aritu den. Nire ustez, ez dute beraien lanak bete.

Zuen Udalak herritarren parte-hartzea bultzatzen du.

Udal irekia eta parte-hartzailea bultzatzen dugu, bai. Ez gara nekatuko horrekin. Herritarren iritzia eta parte-hartzea eskatzen dugu: kekak, iritziak, proposamenak, ideiak, zer nolako Ikaztegieta nahi duen, zer falta zaion... Erabakia gero Udalak hartzen du, baina proposamenak beti hartuko ditugu kon-

tuan, eta aditzeko prest gaude. Beti mugitzen den jendea eta gehiago nahi ditugu. Halere, dirurik ez dago herri txikietan nahi adina gauza egiteko.

Guraso elkarteak indar handia du Ikaztegieta.

Indarra eta gogoia. Gabezi bat ikusten zutelako egiten dute lana: eskolako festa, Olentzero, eta abar. Udalak beti bultzatuko ditu ekintza hauek eta laguntza minimo hori emango zaio. Iniziatiba beti ere, guraso elkartearena da. Ideia asko dago, baina burutzea beste kontu bat da: Kultur Astea, ikastaroak, adinekoentzako ekintzak... Lehenengo kokatu egin behar gara, berriak gara, eta ondo ezagutu behar dugu dena.

Zein dira beharrak?

Eskola da inportanteena herrian orain. Ez dira ume guztiak sartzen, eta irailtik aurre-

ra etxe prefabrikatuak jartze-ko asmoa dugu; gastua eta lana da, instalazioa egin behar delako, egokitu, baina beharrezkoa da, eta datorren urtean ikasleek lekua izango dute. Datorren proiektua hori da: guraso elkarteak bideratutakoa da, eta egun gutxiitan udaltxera iritsiko da proiektua.

Zertan datza?

Printzipioz, eraikina mantendu egingo litzateke, eta atzeko aldekoa bota, bi alturatako eraikin bat gehituz. Udal berriak proiektu honetan sinesten du. Gainera, eskola herriaren erdian mantenduko litzateke, plazaren ondoan, eta elizaren ondoan, gunean, alegia. Eskolak bizia ematen dio herriari.

Eta hirigintzari dagokionez?

Gure helburua herritarren beharrak asetzea da. Aurreko Udalak 160 bat etxebizitza egi-



N. URBIZU

teko proiektua zuen, baina guk ez dugu horretan sinesten. Herri galdeketa egin nahi dugu, jakiteko nolako herria nahi duten, eta horren arabera, etxebizitzak egingo dira, erritmo normal batean. Etxebizitza huts gutxi badaude ere, alokairua ere bultzatu nahi dugu, eta herriko gazteak herrian gera daitezten.

Oposizioa ere baduzue.

EAJk 3 zinegotzi ditu: plenoetara azalduko dira, oposizioan.

Oso gustura nago bestela, beste hiru zinegotziekin. Lanerako gogoia, fundamentua eta ilusioa ikusten dut. Duela 5 hilabete ez nuen alkate neure burua ikusten, baina ikusitako konfidantza eta babes, gehi Udaleko jendea animatu egin nintzen. Gainera, komisiok egin nahi ditugu, herriak parte har dezan, eta horretarako deialdia luzatuko zaio herriari, lau sailetakoren batean parte har dezan. ◀

MARTZELINO DORRONSORO ▶ BALIARRAINGO ALKATEA

«Lehenengo ekintza, lehentasuna duena, errepidea aldatzea da»

Haurren eta adinduen beharrak kontuan hartzen jarraituko du

Martzelino Dorronsorok (Herritarrak plataforma) 4. legealdia egingo du hurrengo lau urteetan zehar (Baliarrain, 1954). Berak aitortu bezala, beste inor ez zegoelako jarraituko du alkate.

Dagoeneko 12 urtez udal txean.

Ardura handia da, nahiz eta herri txikia izan, eta baita lotura handia ere. Ez du ematen, baina etxeko andreak esaten duten bezala, etxeko lanak asko dira, nahiz eta horietako asko ez ikusi. Baina, herri bat inor gabe uztea tristea da.

Aurten 100 biztanletik behera izateak aldaketak dakartza.

Ni naiz zinegotzi bakarra legalaki. Iaz 5 zinegotzi ginen, baina aurten komisiu bat egingo dugu, bakarrik ezin baita, bes-

te jendearen iritziak beharrezkoak dira hauek konstruktiboki izanez gero, bai onerako eta bai txarrerako.

Oraingo proiektuak zein dira?

Arauk agortu ditugu, eta hasi beharko gara horri heltzen; aurrera begira, herria txukuntzen, peatonalizatzen eta neurriak hartzen. Txukundu, ziurtasunaren aldetik, gero eta ume gehiago baitago. Horretarako, plaza ingurua egokitu egin behar da, egon daitezkeen arriskuak ekiditeko. Jende berria etortzen hasi da.

Hori ona da ala txarra?

Bi alderdi ditu; alde ona jendea behar dugula da, eta jende berria etorri da, honek herriari bizia emanez. Beste aldetik, txarra da jendea lasai

bizitzera etortzen delako herri handiagoetatik, bake bila, eta lanerako ardura horiek ez dituzte. Herri mailakoa da antolatzen dugun guztia, eta horregatik lan egin nahi duen jendea behar da. Langile aldetik aukera handirik ez dago hemen. Dinamika horretan sartzea ez da erraza, eta laguntza hori behar dugu.

Hirigintza aldetik?

16 etxebizitza berri egin ditugu, horretan daude. Batzuk etorri dira bizitzera, eta beste batzuk etorriko dira, ez baitute dena bukatu. Agian, 2 urte beharko dira oraindik. Horrez gain, Agenda 21ekin ari gara lanean, eta hainbat ideia forma hartzen ari dira: gero eta baserritar gutxiago dago, turismoa bultzatu behar da, bai-

na ez da hori bakarrik, hirigintza aldetik egin beharrekoak ere daude... Gauza asko dira, baina dena txukun egin behar da.

Gero eta ume gehiago dago; haur eskola zer moduz?

Oso ondo, herriari mesede handia egiten dio; orain lau ume daude, baina horiek dira herriari bizia ematen diotenak. Gure apustuen artean, haurrak 6 urte arte herrian geratu ahal izateko eskola handitzea edo da. Adinduek beraien artean sakabanatuta bizi dira, eta hauek asteen behin edo, elkar daitezten nahi dugu, baina ez da umeekin bezala, ez dute nahi izaten hain erraz, aitzakia bat jarri behar zaie. Hori lortu nahi dugu.

Herria joateko errepidea?



N. URBIZU

Horrekin kezka daukat. Min egin dio herriari Ibiur egitearekin emandako errepide aldaketa: lehen ekintza hori izango da, lehentasuna daukana, errepidea aldatzea, hain zuzen. Istripuak izan dira, bat nahiko larria gainera. Lotsagarria izan da, lehenago txarra genuen, eta orain okerragoa. Gaizki egindako lana da: seinalizazio txarra, zoru irristakorra... Jendea beldurrarekin dago. ◀

IBARRA ▶

Hilaren 14ean
eta 15ean mendi
irteera izango da

Haitzetan Raju mendi taldeak, Oiartzungo Geriza Mendi elkartearekin elkarrekintzan Midi D'Ossau pirineotako «mendi misteriozura» irteera antolatu du hilaren 14 eta 15 egunetarako. Irteera ordua arratsaldeko 15:00etan jarri dute Oiartzungo ikastolatik. Irteeraren kostua 30 eurokoa da eta izen-emateko 691563204 (Xabi) zenbakira deitu behar da eta epea etzi amaituko da. Antolatzaileek «mundu guztia» gonbidatu nahi dute. «Animatu, eta ikusiko duzue zeinen ongi pasako dugun».

IBARRA ▶

Haurren
danborradarako
entseguak abian

San Bartolome jaietako danborradaren prestaketa lanein eta entseguen hasi dira Ibarren. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi duten 2003 urtetik atzera jaiotako haur eta gazteko guztiak ohiko lekuetan jarriko diren zerrendatan izena emateko eskatu dute antolatzaileek. Danborradako entseguak berriz, honako egun eta orduetan izango dira: gaur, hilaren 11, 18 eta 25ean eta abuztuaren 20 eta 21ean, iluntzeko 20:00etan Belabietan.

LEABURU ▶

Txapeldunen
ligan 3. postua
Arrosperiderentzat

Azken saioan garaipena lortu ondoren, hirugarren postuan kokatu da Anjel Arrosperide Aizkolari Txapeldunen Ligan. Leaburuarrak 7 puntu ditu, bigarren dagoen Larretxeak bezala. Nazabal dago lehena, 9 punturekin.

**TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

Begiradak. Atal berri honetan, gai zehatzei buruzko informazioa bilatzeko aukera erraza izango duzu: 2007ko Udal hauteskundeetan aukeratutako alkate berriei egindako elkarrizketak, eskualdeetako musika taldeak...

LIZARTZA ▶ POLITIKA

EAEk Udala «militar faxisten moduan» hartu dutela dio

Herritarren «beharrei» erantzuten jarraituko dutela azaldu dute alderdikideek

ASIER IMAZ

Lizartzako EAE-ANVk prentsaurrekoa eman zuen atzo, egun bat lehenago PPrek ordezkariek zinegotzi eta alkate kargua hartu zituzten leku berean, udaletxeko pleno aretoan, hain zuzen ere.

Astelehena «egun iluna» izan zela aipatuaz hasi zuten agerraldia EAE-ANVren zerrendakideek. Honen arrazoia ere argitu zuten: «Lau urteren buruan bigarren aldiz, herritarren borondatearen gainetik kanpotarrak jarri dira Udal instituzioan».

Batzarra, gaztelania hutsean

Regina Otaola eta PPrek ordezkariek (militar faxistekin) alderatu zituzten, «1936an, militar faxistak etorri ziren modu berean, armaz herria hartu eta Udalaren jabe egin ziren Regina Otaola eta PPrek hainbat arduradun. Militar kolpistek duela 70 urte egin bezala eta mundu guztiko diktadoreen jokamolde berarekin, beraien buruak babesik eman ez dien herritarren ordezkaririk izandatu dituzte. Herriarentzat kulturen diren sinboloak aspian hartu eta espainiar bandera inposatu zuten. Lizartzako Osoko Udal Batzarra, gaztelania hutsean egin zuten. Herritarren haserrea piztu duen aginduak eman eta ekarri zituzten hamarnaka poliziaekin alde egin zuten. Okupazio polizia eta militarren argazki garbia ikusi genuen gure herrian».

«Inposaketa» horretan, «EAIren jarrera» salatu zuten, «ozenki». Izan ere, «atzoko lapurreta ezinezkoa zitekeen armatutako Ertzaintzak bere indarra PPrek esku jarri izan ez balu».

«Demokrazia zero»

EAEkoek, Lizartzan «demokrazia zero»-ko egoera bizi dutela salatu zuten. «Lizartzan ez dago demokraziarik, herritarren borondatea zanpaturik eta Udala inongo legitimitaterik gabe osatu delako. Guk badugu legitimitatea, hemen bildu garen ordezkariek herriak hautatutakoak izan garelako, guk Lizartzako herritarren borondatea ordezkatzen dugu eta honengatik gure ardura da



Lizartzako EAE-ANVk, atzo eguerdian prentsaurrekoa eskaini zuen udaletxeko pleno aretoan. ASIER IMAZ

eta izango da aurrerantzean ere, herriak egindako hautaketa errespetaraztea». Halaber, «argi eta garbi» esan nahi izan zuten, «Alderdien Legearen makila eskuan hartuta», Regina Otaola ez dela «inoiz» lizartzarren alkate izango, «Lizartzarren alkate eta ordezkaririk gurelako, hautatuak izan garenak». Herriaren «beharrei erantzuteko konpromisoa» hartu zuten ondoren, «eta behar horien artean badago bat beste guztien aurretik kokatu

behar duguna: herri honetan faxismoari eta demokrazia zero egoera honi erantzutea».

«Interes zikin eta zitalak»

Regina Otaolak herrian dituen interesak, «zikin eta zitaltzat» hartu zituzten, «jakin badakigu Otaolak bere sasi-alkatetzat PPrek Espainiara begirako politikarako erabiliko duela, hori da bere interesa, interes zital eta zikina, Lizartza berdin zaio-lako, interes bakarra propa-

ganda faxista egitea da gure herria horretarako erabiliz». Baina «ez dutela lortuko» azaldu zuten EAETik, «ez Lizartza ez Euskal Herria ezingo dute faxismoaren hankapean eduki, ez diegu utziko. Konpromiso hori hartzen dugu beraz: faxismoaren aurrean erantzuteko eta herritarren borondatea errespetarazteko konpromisoa, arrazoia eta bozkak gure alde daudelako, bide honetatik aurrera lortuko dugulako gure herrian bakea eta justizia».

Otaolaren lehen ekintza eta aginduak

Regina Otaolak (PP) udaletxean hartu zuen lehen erabakiak ez du denbora asko iraun. PPrek ordezkariek udal plenoan, 1998. urtean Ertzaintzaren tiroketan hildako Ina Zeberio etakidearen argazkia zaka-rrontzira bota eta Espainiako bandera jarri zuten bere lekuan. Gaur Zeberioaren argazkia udal plenoan aurkitzen zen, azken urteetan egon den leku berean. Espainiako banderak ere denbora gutxiko bizi izan du Lizartzan, atzoko udal aretoan ez baitzegoen bere zantzurik.

Otaolaren lehen aginduak arrakasta gutxi izan badu, ezin gauza bera esan herritik joan baino lehen eman zituen beste



Azken urteetan egon den lekuan jarri zuten Zeberioaren argazkia. A.I.

aginduen inguruan. Atzo goizean kendu zituzten udaletxeko balkoitik herriko preso politikoaren argazkiak. Laura Garri-

do (PP) zinegotziak esan zuen bezala, «hormetako marrazkiak» ere goizean bertan estali ziren pintura zuriz. ◀

LEITZA ▶ GIZARTEA

Aurrera Perra Zaldi Taldea «oso gustura», Zaldi Egunarekin

«Balorazio bikaina egin daiteke eta ilusio handiarekin gaude datorren urtera begira», azaldu du Pakito Sagastibeltzak



Larunbateko Zaldi Egunean, haur bat zaldi gainean, Inguruarten. HITZA

NAIARA GARZIA

Aurten Aurrera Perra Zaldi Taldea «oso gustura» gelditu da larunbatean ospatutako Zaldi Egunarekin eta antolatzaileek «balorazio bikaina» egiten dute.

Pakito Sagastibeltza Aurrera Perra Zaldi Taldeko kidea da eta Zaldi Egunaren antolatzaileetako bat. «Balorazioa bikaina egin daiteke, eta ilusio handiarekin gaude datorren urtera begira bestea berriz prestatzeko. Jendearen aldetik erantzuna ona izandu da». Jai egun honekin zaldi mundua aristokraziatik haratago zabaltea lortu dute. «Hego Euskal

Herrian bakarra egiten da era honetako, ez baita beste inon egiten. Beste ikuskizunak egiten dira, baina guk egiten dugun antzekoa hemen besterik ez da ematen. Beti ikusten dugu edozein ikuskizunetan goi-mailako zerbait bezala, diru askokoa, eta hau zaldia gustatzen zaion jende arruntari zuzendua izandu da. Koadri-la handi bat bagina bezala, ba horrelaxe, kutsu hori eman diogu. Ofizialtasunik gabe eta inolako handitasunik gabe, gure beheko maila horretan eta jendearen erantzuna bikaina izandu da».

Aurtengoa bigarren urtea izandu da eta Sagastibeltzak

antolatze lanetan esperientzia lagungarri izan zaiela azaldu du. «Antolaketan aldetik izugarriko ezberdintasuna izandu da lehenengo urtetik bigarrene-ra. Gu lehengo urtean nahiko urduri ibili ginen, baina aurten oso gustura gelditu gara, gauza guztiak lotuz. Bakoitzak bere lana zuen eta jendearen borondatea ere paregabea izan da, bazkalorduan lanean aritu direnena, esaterako. Batzuen emazteak, besteen lagunak... herrikoak eta lagunak ibili dira lanean».

Orotara 120 zaldi inguru bildu ziren larunbatean Leitza, leku ezberdinetatik etorriak. Pertsona asko Gipuzkoatik eto-

rriri ziren, eta erakustaldiak egin zituztenak, besteak beste, Martzilla, Faltzes, Goldaratz, eta Oartzundik.

Zaldia eta festa uztartuz

Goizean 10:00ak aldera 18 lagunetako talde bat mendira joan zen, eta beste mordoxxa handi bat, 60-70 inguru, Inguruarten gelditu ziren goiz guztian zehar proba ezberdinak egiten. 13:00etan herrira jaitsi ziren eta Peritzako aurrealdean zaldi bat eta behor bat harritiraka ibili ziren.

207 lagun bildu ziren Karrapean egin zuten zikro jatean. «Bazkaria ere mundiala zegoen. Zikiroa bere puntuan zegoen. Denak ikaragarri gustura egondu ginen». Bazkaltzen zeudela udaletxeko langile bat, Soro, dena zaintzen gelditu zen. Gero arratsaldean 16:30ak aldera Inguruarten erakustaldiekin hasi ziren: Western erako heziketa, heziketa naturala, espainiar erako heziketa, heziketa klasikoa, goi mailako eskola, traba saltoa, erakustaldi artistikoa eta behor estalketa egin zituzten. Sagastibeltzak azaldu duenez, «jendea goizean baino askoz gehiago izan zen arratsaldean», ekitaldi gehiago antolatuta baitzeuden.

Erakustaldiak

Oiartzun, Martzilla, Faltzes eta Goldaratzetik erakustaldiak egitera etorri zirenak saio ezberdinak egin zituzten bertaratu zirenen gozamenarako. Oartzundik kamioi bat etorri zen 6 zaldirekin eta espainiar erako doma egin zuten, Faltzesko beste sei zaldiek dantza klase batzuk egin zituzten. «Heziketa naturala egin zuena Goldaratzkoa zen, eta kriston lanaldia egin zuen», dio Sagastibeltzak. «4 urteko zaldiko bat prestatu genion, infernuko deabru hutsa eta ordu batean katu txiki bat bezala jarri zuen. Jendetza bildu zen erakustaldietara, halako giroa zegoen gainera».

Hainbat erakustaldiren ondoren, 20:30ak aldera amaitu zen jai eguna.

LEITZA ▶

Iparraldekoan Urrutia harri-jasotzen lehenengoa

Lazaro Bujanek hirugarren postua eskuratu du ingude altxatze proban

ERREDAKZIOA

Josetxo Urrutiak lehenengo postua eskuratu du harri-jasotze proban Iparraldeko Joku Torneoan. Igandeko hirugarren jardunaldia izan du zen eta 3.850 kilo altxatu zituen Urrutiak: zilindroa 14 aldiz, kubikoa 8 eta bola 12. Orotara hiru jardunaldietan 11.700 kilo altxatu ditu. Txingetan, aldiz, seigarren gelditu da sailkapen orokorrean.

Lazaro Bujanek ingude altxatze proban 61 jasoaldi egin zituen. Sailkapen orokorrean Bujanek 177 jasoaldi lortu ditu, hirugarren postua eskuratuz Xabi Sein eta Carlos Sein igantziarren atzetik.

ARESO ▶

Areso 600eko lehen saioan hirugarren gelditu da

ERREDAKZIOA

Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketaren barruan 600 kilotako kategorian lehen jardunaldia egin zuten igandean Lesakan, eta Aresok hirugarren postua lortu zuen 4 punturekin. Goiberri A eta Gaztedi Aren atzetik. Mutriku, Goiberri B eta Gaztedi B doaz oraingoz azkeneko.

hilberria ▶



Mikel Essery Arruti

(Uztailaren 2an, Yememen hil zen)

IZARREN SALDA
URDINA EDANDA
BIZI NAIZ GUSTORA

“Yala yala, habibi”

Zure lankide eta ikasleek



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

DONOSTIA, 2007ko uztailearen 4a

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Alegiako jai batzordeak zikiro jaterako txartelak eskuratzeko epea luzatu du taberna hauetan: Etxeberria, Jubilatuen Taberna, Kafe Letamendia, Iskiña eta Kurpil.

Tolosa. Bihar, Tolosa Kupeko finala eta gero balorazioa egiteko eta aurrera begirakoa antolatzeko bilera egingo dute 19:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. Paleta txapelketa gomazko pilotarekin antolatu du Tolosa CFk uztailaren Berazubiko frontoian. Izen-ematea, 20 eurotan bikotea (10 bazkideek) klubeko bulegoan edo 656 719263 telefono zenbakian.

Tolosa. Bihar, Lasturrera paintball egitera irteera antolatu du Gazte Topaguneak. Irteera 15:00etan Triangulotik. Pezioa: 15 euro. Arropa eroso eta eramaite gomendatzen dute.

Tolosa. Donostiako Santa Klara irlara irteera antolatu du etzi, osteguna, Gazte Topaguneak, 15:20ean Renfeko apeaderotik abiatuta. Prezioa: 4 euro. Informazioa Gazte Topagunean.

Tolosa. Lekuberrira egun osorako irteera antolatu du Gazte Topaguneak ostiralerako: zaldi ibilaldia eta piszina. Prezioa: 15 euro. Irteera 09:00etan Trianguloko bus geltokitik. Arropa eroso, bazkaria, bainujantzia, toalla, eguzki krema... eramatea gomendatzen dute. Informazioa Gazte Topagunean.

Villabona. Biltoki jubilatuen elkarteak irteera antolatu du Harora uztailaren 10erako. Argantzon eta Gasteiz ere bisitatuko dituzte. Izen-ematea, elkartearen 19 eurotan.

Zuzurkil. Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa. Informazioa eta izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan. Epea: uztailak 6.

Zuzurkil. Zuzurkilen Barrena beka antolatu du Udalak, herriko emakume baseritarrei buruzko diagnostikoa egiteko. Lanak udal txanekin aurkeztu behar dira (943-692495).



Aizkardiren elkarteak Larrañe-Belagua ibilbidea egingo du

VILLABONA ▶ Aizkardi mendi elkarteak ibilbide berri bati ekingo dio igandean: Larrañe-Belagua. Larrañeko portutik abiatuko dira mendizaleak (1.573 m) Otsogorrigaina (1.922 m) aldera eta Oria atzean utzita. Jaitsiera gogor baten ostean, Txardekagainara igoko dute (1.893m) jarraian Kartxelara igotzeko (1.982m). Bertan Juan

Pito ostatura jaitsiko dira, ibilbidea amaituzat emango dutelarik. Bost ordu eta erdi inguruko iraupena izango du 15 kilometroko ibilbideak. Irteera honetan parte hartzeko 943 694458 telefono zenbakian eman daiteke izena (Joxan) edo Aizkardi bertan, larunbata baino lehen. 06:00etan abiatuko dira Olaederra kiroldegitik. HITZA

ERAKUSKETAK

Alegia. Alegiko jubilatuen tabernan eskualdeko Xegunda Iztueta tolosarraren margolan biziak daude ikusgai, asteartetik igandera bitarte eta hilabete osoan zehar. Orokorrean, paisaiak egiten ditu, eguzkiak zeruarekin nahastuz sortzen dituen

kolore berezi eta ederrak islatuz.
Tolosa. Ekainaren 15etik uztailaren 7ra arte, Aranburu Jauregian, Antonio Maria Labaien Kultur Etxeko arte plastikoan lantegietako ikasleen lanen erakusketa ikusgai izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gemrikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrataria (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa

magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Irraili uhinak.
21:00-23:00etara. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Aitor Lopetegi Arrue (Tolosa). Gaur 2 urte. Zorionak eta muku asko familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaltxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...